



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

## PRENTSA-OHARRA

### 'HITZAK LEGE': GARRANTZI HISTORIKOA IZAN DUTEN EUSKARAZKO TESTU JURIDIKOAK, DONIBANE-GARAZIKO HERRIKO ETXEAN

- Azaroaren 5ean estreinatu eta 2024ko abenduaren 6a arte izanen da ikusgai, garrantzi historikoa izan duten euskarazko testu juridikoak, arlo pribatukoak zein publikokoak, agertzen dituen *Hitzak Lege* erakusketa ibiltaria.
- Erakusketa honen helburua da eremu juridikoan urteetan euskaraz egin den ekarria gizarteratzea eta jendeari erakustea.
- Euskaltzaindiak *Terres de Navarre-Nafarroako Lurraldeak* elkartarekin eta Donibane-Garaziko Herriko Etxearekin partaidetzan, eta Eusko Legebiltzarrarekin, Nafarroako Parlamentuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko ganbera legegileekin elkarlanean antolatu du erakusketa.

DONIBANE-GARAIZI, 2024-10-29an

Azaroaren 5ean, 18:00etan estreinatuko da Donibane-Garaziko Herriko Etxean *Hitzak Lege*, garrantzi historikoa izan duten euskarazko testu juridikoak, arlo pribatukoak zein publikokoak agertzen dituen erakusketa ibiltaria. Ohorezko aretoan izanen da ikusgai, 2024ko abenduaren 6ra arte (astelehenetik ostiralera, 8:30>12:00 – 14:00>17:30).

Euskal hiztunek harreman juridikoetan euskara erabili dutela eta erabiltzen dutela azaleratzea da erakusketaren helburu nagusia. Horretarako, 25 panelez (dokumentuen informazioarekin, lau hizkuntzatan); 3 panel elkarreragilez, 3 panel argiztatuz eta 2 mahaitxo (jatorrizko dokumentuak erakusteko) horniturik dago erakusketa. Euskararen lurralteetan euskara eremu juridikoetan erabili izan denaren adibide dira erakusketa honetan barruratutako dokumentuak. Pirinio Atlantikoetako Departamenduan, Euskal Autonomia Erkidegoko ganbera legegileetan, Eusko Legebiltzarrean, Nafarroako Parlamentuan eta Akitania Berrian gordetzen diren euskarazko testu juridiko adierazgarrienak modu erakargarri, ulergarri eta interaktiboan antolatu ditu *Hitzak Lege* prestatu duen Gotzon Lobera legegile eta euskaltzain urgazleak. Haren ahotik entzunen dira hain zuzen ere erakusketari buruzko xehetasunak, azaroaren 5eko estreinaldi ekitaldian.

*Hitzak Lege* erakusketa Baionan (2024ko urtarrilean, Departamenduko artxiboen gunean), Iruñean, Bilbon eta Euskal hiriburu gehienetan egon ondoren, Baxe Nafarroako hiriburuan ikusgai izanen da aldi honetan, hilabetez, *Terres de Navarre-Nafarroako Lurraldeak* elkartaren iniziatiibari eta Donibane Garaziko Herriko Etxearen partaidetzari esker.

### PUBLIKOARENTZAKO INFORMAZIO OSAGARRIA

*Hitzak Lege* erakusketaren estreinaldia 2024ko azaroaren 5ean izanen da, asteartea, 18:00etan. Egun horretan, Gotzon Lobera legegile eta euskaltzain urgazleak, *Hitzak Lege*



erakusketaren paratzaileak, bisita gidatua eskainiko du euskaraz (itzulpena izanen da frantsesera). Bertan egonen dira Euskaltzaindiko, *Terres de Navarre-Nafarroako lurraldeak* elkarteko eta Donibane Garaziko Herriko Etxeko ordezkariek.

#### BISITEN ORDUTEGIA :

Azaroaren 6tik Abenduaren 6ra - astelehenetik ostiralera, 8:30>12:00 - 14:00>17:30

+ *Terres de Navarre-Nafarroako lurraldeak* elkarteko bisitaak eskainiko ditu ondoko larunbatetan: **azaroak 9, 16 eta 23an, 10:00etatik >12:00etara.**

Estekan honetan : <http://hitzaklege.eus/irudia/Hitzak%20Lege%20aldizkaria%202025.pdf>

*Hitzak Lege* erakusketari buruzko liburuxka topatuko duzue, edukiei buruzko informazio gehiagorekin.

Edozein galdera edo zalantza argitzeko, bisita baten antolatzeko, elkarritzeta baten galdezzeke:

- **Terres de Navarre-Nafarroako lurraldeak elkarteak:** [contact@terresdenavarre.fr](mailto:contact@terresdenavarre.fr)
- **Euskaltzaindia:** [jiroz@euskaltzaindia.eus](mailto:jiroz@euskaltzaindia.eus) 05 59 25 30 56

## COMMUNIQUE DE PRESSE

# L'EXPOSITION ITINÉRANTE *HITZAK LEGE* SUR LES TEXTES JURIDIQUES RÉDIGÉS EN LANGUE BASQUE À SAINT-JEAN-PIED-DE-PORT

- Le vernissage de l'exposition itinérante *Hitzak Lege* présentant des textes juridiques en langue basque ayant une importance historique sera inaugurée le 5 novembre prochain et restera ouverte au public jusqu'au 6 décembre.
- Cette exposition a pour but de faire connaître au public la contribution faite en langue basque dans le domaine juridique.
- Cette exposition créée par Euskaltzaindia, l'Académie de la langue basque en collaboration avec le Parlement basque, le Parlement de Navarre et les Chambres législatives de la Communauté autonome basque est présentée à Saint-Jean-Pied-de-Port en partenariat avec l'association Terres de Navarre-Nafarroako Lurraldeak et la Mairie de Saint-Jean-Pied-de-Port.

SAINT-JEAN-PIED-DE-PORT, le 29 octobre 2024

L'exposition itinérante *Hitzak Lege* présente des textes juridiques en langue basque qui ont une importance historique. Elle sera inaugurée le 5 novembre prochain à 18h00 au Salon d'Honneur de la Mairie de Saint-Jean-Pied-De-Port; elle restera ouverte au public jusqu'au 6 décembre (du lundi au vendredi, de 8h30 à 12h00 et de 14h00 à 17h30).

L'objectif de l'exposition est de montrer à un large public que les locuteurs basques ont utilisé et utilisent aujourd'hui encore le basque dans les documents juridiques. Ainsi l'exposition propose 25 panneaux explicatifs (en quatre langues), 3 panneaux interactifs, 3 panneaux éclairés et 2 vitrines avec des documents originaux. Ces documents montrent l'utilisation de la langue basque dans le domaine juridique sur l'ensemble du territoire de la langue basque. Les textes juridiques les plus représentatifs en langue basque issus des archives des différents territoires comme le Département des Pyrénées-Atlantiques, les Chambres législatives de la Communauté autonome basque, le Parlement basque, le Parlement de Navarre et la Nouvelle-Aquitaine sont proposés de

manière ludique, abordable et interactive par le clerc de notaire et universitaire Gotzon Lobera qui a conçu l'exposition. Il sera présent à l'occasion du vernissage et proposera une visite guidée en langue basque (avec service de traduction simultanée).

Après Bayonne (au Pôle bayonnais des Archives départementales), Pampelune ou encore Bilbao, c'est au cœur de la capitale Bas-Navarraise que le public pourra voir gratuitement l'exposition itinérante HITZAK LEGE grâce à l'initiative de l'association Terres de Navarre-Nafarroako Lurraldeak et la collaboration de la Mairie de Saint-Jean-Pied-de-Port.

## INFORMATIONS PRATIQUES

Le vernissage de l'exposition itinérante *Hitzak Lege* aura lieu le 5 novembre prochain à 18h00 au Salon d'Honneur de la Mairie de Saint-Jean-Pied-De-Port, en présence de responsables de l'Académie de la langue basque, de l'association Terres de Navarre-Nafarroako Lurraldeak et de la Mairie de Saint-Jean-Pied-de-Port. Gotzon Lobera, académicien correspondant et coordinateur de l'exposition sera aussi présent et proposera une visite guidée en langue basque (avec traduction simultanée).

## HORAIRES DES VISITES

\*L'exposition (gratuite) sera ouverte au public à partir du 6 novembre au 6 décembre (du lundi au vendredi, de 8h30 à 12h00 et de 14h00 à 17h30).

\*L'association Terres de Navarre-Nafarroako Lurraldeak proposera des visites guidées les samedis 9, 16 et 23 novembre, de 10h00 à 12h00.

\*En cliquant sur ce lien : <http://hitzaklege.eus/irudia/Hitzak%20Lege%20aldizkaria%202025.pdf>

Vous pouvez télécharger le catalogue de l'exposititon Hitzak Lege, pour plus d'informations.

Pour toute autre demande d'informations, ou d'interviews n'hésitez pas à nous contacter:

- **Association Terres de Navarre-Nafarroako lurralteak :**  
[contact@terresdenavarre.fr](mailto:contact@terresdenavarre.fr)
- **Euskaltzaindia:**  
[jiroz@euskaltzaindia.eus](mailto:jiroz@euskaltzaindia.eus) **05 59 25 30 56**



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE